

EGUNEROKO ESKANDALUA

Urtea 2015 - Edizioa VII - Manos Unidas

EKONOMIA ELIKAGAIK

Elikagaiak ekoizteko modu hau jasangarria al da?

Aspalditik dakigu elikagai batzuk bota egiten ditugula, baina azken datuek erakusten diguten egoera izugarria da benetan: urtero-urtero, 1.300 tona janari baino gehiago botatzen dira zaborretara; hau da, munduko ekoizpenaren herena.

Europan, ekoizten diren elikagaien erdiek baino gehiagok zakarrontzian bukatzen dute.

Munduan, gaur egun, 805 milioi pertsona dago goseak. Eta gero eta jende gehiago bizi da. Nola elikatuko gara aurrerantzean, hainbeste janari alferrik botatzen badugu eta halako injustizia badago?

Gure planeta gauza al da halako presioa jasateko?

EUROPAN, EKOIZTEN DIREN ELIKAGAIEN ERDIEK BAINO GEHIAGOK ZAKARRONTZIAN BUKATZEN DUTE.



-5%

Ekoiztean, 5 baztertu egiten dira

-7%

Prozesatzean eta garraiatzean, 7 galdu egiten dira




-10%

Dendetan 10 kentzen dituzte

-33%

Kontsumitzaileok 33 botatzen ditugu



ONDORIOA:
45 jaten ditugu
55 zakarrontzira joaten dira

KIROLAK


Janaria zaborretara botatzea, garaile nagusia Planetaren gaineko inpaktua txapelketaren azken edizioan

Janaria Zaborretara Botatzea guztiz nagusitu da txapelketako hiru probetan.


Zaborretara bota diren janariak ekoizteko, ur eta energia asko behar izan dira (ur-aztarna), sekulako azalera erabili behar izan da (lurzoruaren okupazioa), eta, hondakinak direnez, berotegi-efektuko gas pila bat askatu dituzte deskonposatzean (karbono-aztarna).



Ur-aztarnan, aurreneko postua lortu du, 250 km³ ur behar izan dituelako elikagaiak ekoizteko.



Lurzoruari dagokionez, 1.400 milioi hektarea inguru behar izan ditu elikagaiak ekoizteko; munduko bi herrialde handien azalera bezainbeste.



Karbono-aztarnaren arloan, abantaila handia atera die Txinari eta Ameriketako Estatu Batuei; beste guztiek baino berotegi-efektuko gas gehiago isuri ditu.

Iturria: Alferrik botatzen den janariaren aztarna. FAO, 2013ko iraila.